La Residencia de la Misericordia de Bilbao está llevando en los últimos meses un proceso reorganizativo y restrictivo que supone la reducción salarial del 10% de la plantilla y la congelación e incumplimiento del acuerdo de incrementos salariales.

Por otra parte, ELA muestra su preocupación por el hecho de que el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia –cuyos máximos responsables están presentes en la junta de gestión de este centro– tomen parte en un modelo de gestión que lleva a la privatización de uno de los centros residenciales y de beneficiencia históricos de Bilbao y de Bizkaia.

## Pasividad de Osasunbidea ante las coacciones a las trabajadoras de las cocinas hospitalarias

ELA denuncia la pasividad de la dirección del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea ante las coacciones que está ejerciendo la empresa que se hará cargo en próximas semanas de las cocinas privatizadas del Complejo Hospitalario de Navarra. Dicha compañía, –Mediterránea de Catering–, está exigiendo a numerosas trabajadoras que renuncien a su actual contrato en Osasunbidea como condición obligatoria para optar a un puesto en las futuras cocinas privatizadas.

Esta práctica abusiva busca que las trabajadoras pierdan el derecho a la antigüedad y que no pueda considerarse continuidad de actividad. Las personas que bajo esta coacción han renunciado a su contrato sólo tienen una promesa verbal de ser contratadas por Mediterránea, pero pierden el derecho al subsidio de paro, se ven penalizadas en las listas públicas de contratación y deben sufrir la humillación de transigir con un chantaje





## Más de dos meses de huelga de la plantilla del 010, de Gasteiz

Los trabajadores y trabajadoras del servicio de 010 y de atención ciudadana de los centros cívicos de Gasteiz llevan más de dos meses de huelga indefinida, ante el anuncio del alcalde Javier Maroto de reformar el servicio y suprimir 20 de sus 32 puestos de trabajo. La pantilla continúa con las movilizaciones ante el Ayuntamiento de Gasteiz y otros puntos de la ciudad para dar a conocer su problemática a los vecinos.

que aprovecha sin escrúpulos la debilidad de quien se ve abocado al desempleo.

## Movilizaciones de las trabajadoras de los Hospitales de Txagorritxu y Cruces

Las trabajadoras de limpieza de los centros hospitalarios de Txagorritxu en Gasteiz y de Cruces en Barakaldo protagonizaron el 3 de enero sendas movilizaciones para exigir la retirada del expediente disciplinario abierto a una enfermera que participó en la huelga general del pasado 26 de setiembre.

## Se establecen los recortes en la Administración del Estado y el aumento de jornada para el 2013

ELA criticó en la reunión de la Mesa General de la Administración General del Estado, celebrada el pasado 26 de diciembre, los recortes salariales y el aumento de jornada de los trabajadores y trabajadoras del Estado.

El Gobierno español impuso los recortes en los días de libre disposición y vacaciones de 2012 y, además, ha presentado un calendario con un aumento de la jornada anual de 17 horas. Con estas medidas aumenta la destrucción de empleo emprendida en el sector público y se deterioran aún más las condiciones de trabajo del personal al servicio de la Administración General del Estado.

La Administración, sin necesidad de tener que hacerlo, va a imponer nuevos recortes que se suman a los establecidos en el Real Decreto de julio. Entre otros destacamos:

- Calendario laboral *dictado* por los subsecretarios, sin previa negociación.
- Se van a permitir cierres de organismos en determinadas épocas del año, condicionando las vacaciones de los empleadas y empleados públicos y el servicio a la ciudadanía.
- Se eliminan los permisos de formación basados en el desarrollo personal.
- Se convierten en potestad discrecional de la Administración la flexibilidad y conciliación de la vida la laboral y familiar al subordinarlas a las necesidades del servicio.

## Jornada de paro en el sector vinícola de Araba

El pasado 11 de diciembre los trabajadores del sector vinícola protagonizaron la segunda jornada de paro en defensa del convenio colectivo, jornada que fue mayoritariamente secundado. El paro fue total, entre otras muchas, en Cune, Faustino, Marques de Vitoria, Bodegas Palacios, Heredad de Ugarte, Baigorri, Ramírez de Ganuza, Heredad Baroja, Bodegas Vitorianas y Primicia.

## ELA lo consigue: Garbialdi ha abonado la paga extra al personal de limpieza de la Diputación de Bizkaia »

Garbialdi –empresa que presta el servicio de limpieza en la Diputación de Bizkaia– ha abonado la paga extra de Navidad, en contra de lo que anunció en un primer momento. ELA destaca que ha sido la movilización la que ha logrado que la dirección cambie de opinión y haya abonado las pagas del 2012 en su integridad.

## Codena a la subcontrata de limpieza de Kutxabank

» La subcontrata de limpieza de Kutxabank, PILSA, impuso una modificación de jornada a las trabajadoras el pasado mes de agosto. Pretendía reducir sus jornadas de cinco días a la semana a tres, con la consiguiente merma salarial. Pretendía ahorrarse, a costa de los salarios de las trabajadoras, 51.000 euros al mes.

La sentencia del Juzgado de lo Social de Donostia declara injustificada o improcedente la decisión, dejando sin efectos la medida de reducción de jornada de las trabajadoras, y obliga a la empresa a reponer a todas las afectadas a su jornada laboral anterior debiendo abonar las diferencias derivadas de las reducciones de jornada en concepto de daños y perjuicios. Esta medida afecta a 68 trabajadoras.

## Cortefiel se compromete a negociar tras el paro »

ELA planteó tres jornadas de huelga para los días 22 de diciembre y 5 y 7 de enero en el Grupo Cortefiel de Bilbao, que cuenta con las marcas Cortefiel, Springfield, Women´s Secret, Pedro del Hierro y Fifty Factory, en defensa del convenio de empresa. Ante el éxito de la primera jornada de paro, la dirección de Cortefiel se comprometió a llevar una propuesta para la reunión convocada para el 10 de enero.

ELA ha denunciado repetidamente la nula voluntad negociadora de la dirección de Cortefiel, que pretende aplicar los aspectos más regresivos de la Reforma Laboral y está esperando a que el 7 de julio del 2013 finalice la utractividad de los convenios.

# Kopisal: negociar en las pymes

ELA LOGRA EL PRIMER CONVENIO DE EMPRESA DE ESTA PYME, DE LEZO, TRAS SINDICALIZAR A LA MAYORÍA DE LA PLANTILLA



(Izda a dcha): Pedro Almandoz y Lander Camio, trabajadores de Kopisal, con el convenio logrado ya publicado

› N.I.

**José Luis Vidal e Iñaki Artetxe, responsables del Metal y de pymes en Oarso-Bidasoa,** respectivamente, son contundentes: "Es posible sindicalizar las pymes y negociar convenios de empresa que blinden las condiciones laborales de los trabajadores/as. La única respuesta real a la reforma de la negociación colectiva es ésa; seguir apostando por el sectorial como si nada hubiera cambiado es engañar a la gente". Y lo demuestran poniendo el ejemplo reciente de Kopisal, una empresa de calderería de Lezo que cuenta actualmente con 13 trabajadores y que en menos de dos años ha pasado de sufrir un ERE a negociar y firmar su primer convenio de empresa.

Kopisal era un empresa sin sindicalizar: por no tener no tenía ni delegados de personal. A raíz de la aprobación de un ERE en 2011, varios trabajadores acudieron al sindicato en busca de información y asesoría. Lo primero que hizo ELA fue convocar elecciones sindicales. Salió elegido un delegado cuya labor principal en ese tiempo fue gestionar el expediente.

Una vez superado el bache laboral ocasionado por el ERE, ELA convocó –como está haciendo en todas las pymes– una asamblea para explicar el contenido y las consecuencias de la reforma de la negociación colectiva aprobada por Rajoy. "Explicamos la necesidad de tener un convenio de empresa porque es el único que blinda las condiciones laborales –explican José Luis e Iñaki–; vemos que la gente entiende que eso es así y es entonces cuando damos un paso más y planteamos la necesidad de sindicalizar la empresa para, en caso de tener que llegar al conflicto, poder mantenerlo y ganarlo". "A partir de ahí –continúan– realizamos varias asambleas más, y cuando 7 de los 9 trabajadores susceptibles de afiliarse lo hacen creemos que se dan las condiciones para poner en marcha el proceso de realizar una plataforma de convenio y presentarla a la empresa".

La respuesta de la dirección de Kopisal fue la esperada: asegurar que no iban a aplicar la reforma y remitirse al sectorial del metal. "Evidentemente, maniobras dilatorias para intentar desmovilizar y parar el intento de negociar un convenio propio. Confiar en que la patronal vasca no va a aplicar una ley hecha a su medida es de ilusos", explican estos sindicalistas.

## Sektore mailan hitzarmena egon ala ez, enpresako hitzarmena da lan-baldintzentzako berme bakarra

**Esperar el momento propicio.** Y como en toda guerra, aunque sea figurada, la estrategia es decisiva, decidieron esperar el momento propicio para realizar un nuevo intento negociador. Al de poco tiempo, Kopisal recibió un pedido importante de Fagor que había que cubrir en tiempo y plazos. Era el momento de empezar a mover ficha. "El primer movimiento fue decidir no hacer horas extras durante un mes, para presionar a la empresa. La dirección aguantó el envite, aunque empezó a ponerse nerviosa. El siguiente fue la realización de una asamblea en la que se concretaron los días de paro en defensa de un convenio propio. Es entonces cuando la empresa planteó una reunión con el sindicato y se inició una negociación que culminó con el primer convenio de Kopisal", relatan.

Un convenio que es valorado muy positivamente por el conjunto de la plantilla, tanto por su logro como por sus contenidos. "A saber: se incluye el texto del actual convenio del metal de Gipuzkoa así como blindajes para que la reforma no afecte en la empresa; ultraactividad indefinida; se establece que no haya arbitraje obligatorio ni en la modificación sustancial de las condiciones de trabajo ni para el descuelgue salarial. Es un convenio a un año –2012– y se fija una subida salarial equivalente al IPC; el despido por causas objetivas derivadas del absentismo tendrá una indemnización de 45 días...", enumeran Vidal y Artetxe.

Con la perspectiva que da el tiempo transcurrido, estos sindicalistas tienen muy claras las lecciones de la lucha de Kopisal. "La gran conclusión de esta pelea es que el tamaño de la empresa no es decisivo en la negociación del convenio. Lo que favorece que haya un buen convenio es la sindicalización de la empresa. En este sentido, también es importante que la sindicalización sea previa a cualquier proceso de negociación porque tiene un efecto automático en el contenido del acuerdo", remarcan.

**Es posible negociar en las pymes.** Vidal y Artetxe han encontrado en Kopisal el camino a seguir en todas las pymes del metal de Oarso-Bidasoa, y vaya si lo están haciendo. "En primer lugar, informar a los trabajadores de los efectos de la reforma: no dar por supuesto que lo saben porque no es así. Somos, además, los únicos que estamos haciendo ese trabajo", explican. "El siguiente paso –continúan– plantear la sindicalización como fase previa a la negociación". Fruto de ese trabajo ya hay media docena de empresas en la que ELA está planteando la negociación de su primer convenio de empresa.

El reto es enorme pero ineludible porque, tal como resaltan estos sindicalistas, "la única forma de parar la reforma de la negociación colectiva es el convenio de empresa. Decir que el sectorial la puede parar es engañar a la gente".

La lucha de Kopisal ha demostrado que con trabajo organizado se puede ir de la nada al todo, sindicalmente hablando, en apenas un par de años. Ahora toca seguir el ejemplo.

# “Galdutakoa berreskuratzea eta lanpostuen defentsa dira 2013ko ardatz nagusiak”

## IGOR EIZAGIRRE, ELA-GIZALANEKO IDAZKARI NAGUSIA

› GORKA QUEVEDO

**Errealitateak murrizketa politikek funtzionatzen ez dutela behin eta berriz esan eta erakusten digun arren, gobernu ezberdinak politika horretan tematzen ari dira.** Iragan urteko uztailean Espainiako Gobernuak murrizketa sorta berri eta larria zekarren 20/2012 lege dekretua onartu zuen. Murrizketa horien atal handi batek zerbitzu publikoei eta bertako langileei eragiten zien. Gizalan federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirrek Hego Euskal Herriko administrazioetan dekretuak izandako eragina eta aurtengo erronka nagusiak aztertzen ditu.

**-Zein nolako eragina izan du 20/2012 dekretuak zerbitzu publikoetako langileen artean?**

-Euskal sektore publikoko langileen aurkako eraso bortitz baten aurrean gaude. Berriro ere jo-puntuan jartzen gintuen dekretu baten aurrean aurkitzen ginen, eta horren aurrean borrokatzea beste biderik ez zegoela argi genuen. Horregatik, besteak beste, irailaren 26ko greba orokorra deitu genuen. Hasieratik bi helburu izan ditugu. Lehenengoa, dekretu horri ezezko biribila esatea eta politikak aldatzeko eskaria egitea eta bigarrena instituzioz instituzio joatea, dekretua eta, ondorioz, murrizketak aplikatu ez ditzaten exijitzeko.

**-Zein irakurketa egiten duzu Hego Euskal Herriko administrazio ezberdinek izandako jarreraren inguruan?**

-Emaitzei erreparatuz gero, denetik topa dezakegu. Udal eta Foru Administrazioan murrizketak geratzeko gai izan gara neurri batean, batez ere 35 ordutako lanaldia, Aldi Baterako Ezintasunak edo Baimenak bezalako gaietan. Gabonetako aparteko sariari dagokionez, berriz, gure helburua Gipuzkoako Foru Aldundian eta Nafarroako eta EAEko hainbat udal txiki eta ertainetan lortu dugula aipatu beharra dago.

Ikustear dago, bestalde, Eusko Jaurlaritza berriak zer nolako erabakiak

> **“Recuperar lo perdido estos últimos años y la defensa del empleo serán los principales retos del 2013”**



> **“Las decisiones de algunas administraciones demuestran que, si hay voluntad política, hay alternativas”**

hartzen dituen Rajoyren dekretuak ezartzen zituen beste neurriei buruz. Gabonetako aparteko pagaren inguruan gertatu dena, berriz, iruzur galanta da gure ustez. 2013ko aparteko ordainsariak aurreratzeko erabakiak Rajoyren dekretua onartzea suposatzen du.

Etsigarria da bere burua autogobernuaren defendatzaile aurkezten duen Jaurlaritzak 2012ko ordainsari guztiak ordaintzeko alternatibarik ikertu nahi ez izatea. Gainera, salatu beharrean gara aparteko ordainsarien aurreratzea langileen ordezkariekin hitz egin gabe bultzatu duela, gure iritzia kontutan izateko asmorik ez duela erakutsiz.

Nafarroako Gobernuaren erabakiari dagokionez oso larria iruditzen zaigu gertatu den guztia. Nafarroako Parlamentuak langile publikoen asteko 35 orduko lan jardunaldia berreskuratu eta Gabonetako aparteko saria konplementu edo osagarri gisa ordaintzea adostu zuen. Bi neurriak UPNren eta PPren kontrako bozekin atera ziren aurrera. Hala ere, gobernuak ez ordaintzea erabaki du, Parlamentuaren gehiengoak erabakitakoari bizkar emanaz.

> **“Adelantar las pagas extras del 2013 sin abonar las del 2012 en su integridad supone aceptar el decreto de Rajoy”**

Azkenik, ezin dugu ahaztu dekretuak enpresa publikoetako langile guztiei eragiten ziela. Beraz, Gabonetako aparteko saria ordaindu ez duten erakundeen menpe dauden enpresa horietako langileak ere aparteko pagarik gabe gelditu dira.

**-ELAk beti defendatu izan du murrizketa horien aplikazioa borondate politiko kontu hutsa zela.**

-Dekretuaren berri izan genuenetik hori argi genuen. Borondatea eta ausardia baldin badago alternatiba errealak daudela helarazi diegu administrazio guztiei, eta bertan agintean dauden alderdiei mezu bera igorri diegu. Doako eta kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak defendatzen badituzte, gure aldarrikapenak ontzat jo behar dituzte. Eta hori, noski, bateraezina da murrizketa politikekin. Aldiz, murrizketak ezarri nahi izan diren tokietan, indarra eta mobilizatzeko gaitasuna izan dugun leku guztietan han izan gara borrokan, unean-unean agintean zegoen alderdiari begiratu gabe.

Gure helburua, mobilizazioaz harantzago, alternatibak egon bazeudela publiko egitea izan da. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako eta EAEko hainbat udalek hartutako jarrera eta izandako jokabidea hori berrestera dator. Gure iritziz hori da bide zuzena.

**-Egungo egoera aztertuta, zeintzuk dira Gizalanek 2013. urteari begira dituen erronka nagusiak?**

-2012ko ordainsari guztiak emateari uko egin izana kolpe berri bat da enplegatu publikoentzat. Azken bi urte eta erdian zerbitzu publikoetako langileon soldaten eros-ahalmenaren %20ko jaitsiera kontsolidatu du erabaki horrek. Horregatik, murrizketa gehiago onartuko ez ditugula azpimarratzeaz gain, azken urte hauetan kendutakoa berrezartzeko borrokari ekingo diogu. Urrats bat aurrera emateko garaia da, eta horrek orain artekoa berreskuratzea suposatzen du. Hori eta lanpostuen defentsa izango dira aurtengo gure ardatz nagusiak.

LAN OSASUNA
SALUD LABORAL

# Lan osasuna negoziazio kolektiboan




› LEIRE HEREDIA

**Langileon osasunaren babesa Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen (LAPL 31/95) eta lege hau garatzen duten araudien oinarrizko helburua da.** Lege eta araudi hauek gutxieneko eta betebeharreko Zuzenbide izaera dute, hau da, xedapen horiek oinarrizkoak dira, baina hitzarmen kolektiboetan hobetu eta garatu daitezke (LAPL2.2 art.). ELArentzat lan osasuna klase gatazkaren beste esparru bat gehiago da. Gai honi gure ekintza sindikalean lehentasuna osoa eman behar diogu.

Hala ere, errealitateak erakusten digu 1995. urtean aipatutako legea indarrean sartu zenetik, negoziazio kolektiboaren bidez lan osasuna enpresetan sartzeko saiakerak eta ekimenak eskasak izan direla. Oso konbenio gutxik barneratzen du lan osasunaren gaia eta are gutxiagok egiten du benetako prebentzio ikuspuntu batetik, hots, langileon eskubide eta betebeharretan hobekuntzak sartuz edo parte-hartze sistema errealak eratuz. Gutxitan lortu da legearen interpretazioak irekita uzten dituen puntuetan prebentzio-delegatuek benetako ekintza sindikala garatzea.

Lan osasun alorretik prebentzioren gaia negoziazio kolektiboan barneratzea ezinbestekoa da, hobekuntzak lortzeko aukera dagoelako. Jakin badakigu egungoak garai zailak direla negoziazio kolektiboarentzat, baina guztiz beharrezkoa da federazioek lan hitzarmenetan prebentzio klausulak sartzeko lan egitea, lan osasun alorrarekin batera indarrak batuz. Honek langileen bizi baldintzak hobetu egingo ditu ezinbestean.

Horretarako, lan osasuna eta negoziazio kolektiboa garatzen dituen dokumentu bat egin dugu. Nahiz eta nahiko orokorrak izan jasotzen diren lan lerroak, enpresa edota sektore bakoitzean gehiago zehaztu daitezke, bakoitzaren ezaugarrien arabera.

## Puntu esanguratsuenak:

***Printzipio orokorrak eta arriskuak ebaluatzea:** Eguneratutako ebaluaketak eskatu behar ditugu, bai generikoak eta bai berariazkoak ere, enpresa bakoitzean antzeman ditugun arriskuen arabera. Ebaluaketa hauetan, prebentzio- delegatuen partehartzea bermatu behar da, prebentzio hobekuntzak indartzeko. Horrekin batera, ekintzen jarraipena egiteko arduradunak eta gauzatze-epeak jasoko dituen prebentzio plangintza eskatu beharra dago enpresari.

***Langileen prestakuntza eta informazioa:** Prestakuntza lanorduetan egingo dela jaso behar da konbenioetan. Prestakuntzaren edukiak eta ordu kopurua zehaztu behar dira, langileontzat egokienak diren gaiak barneratuz.

***Osasunaren zaintza:** Berariazko osasun-azterketak zer motatakoak eta zenbateko maiztasunarekin egingo diren zehaztu behar da. Azterketak prebentzio-zerbitzuko lokaletan egingo dira, higiene eta intimitate minimoak eskatuz eta unitate mugikorrik ez dugu onartuko. Osasun azterketak lan-orduetan egingo direla bermatuko dugu eta instalazioetara joateko denbora lan-ordu gisa zenbatzea eskatuko dugu. Era berean, joan-etorriko eta aparkalekuko gastuak ordain ditzatela exijitu behar dugu eta lan-orduetatik kanpo egiten badira, kasuan kasuko ordainsaria eskatu.

***Kontsulta eta partaidetza eskubideak:** Prebentzio-delegatuentzat ordu-kreditua eta eskura dituzten bitartekoak areagotzea eska daiteke, eginkizunak hobeto egiteko. Indarrean dagoen legerian ezarritako prebentzio-ordezkarien kopurua handitzea ere hitzartu daiteke. Berrogeita hamar langiletara iristen ez diren enpresetan Segurtasun eta Osasun Batzordea osatzeko derrigortasuna ezartzea beste aukera bat da.

Prebentzioari dagokionez, benetako partehartze bideak exijitu behar ditugu, mutualitatearen edo prebentzio zerbitzuen aukeraketan edo lan osasunean emango den formazioan ere langileon erabakia kontutan hartua izan dadin.

***Ugalketarako eta amatasunerako arriskuak:** Haurdun edo edoskitze garaian dauden emakumeentzako arriskurik gabeko lanpostuen zerrenda eskatu behar da. Horrelakorik ez balego, kontratua aldi baterako eteteko duen eskubidea bermatu behar da, mutualitateek gomendatzen dutenaren gainetik.

***Enpresa-jardueren koordinazioa:** Enpresa nagusiko prebentzio-delegatuei eta enpresa-batzordeei aukera eman behar zaie zenbat enpresa azpikontratatu eta enpresa horiek zenbat langile dituzten zehatz-mehatz jakiteko, prebentzio batzorde bateratuak egiteko. Modu honetan, enpresa laguntzaileetako langileek enpresa nagusiko langileek dituzten segurtasun-baldintza berberak izatea lortu behar dugu.

***Plusak eta bestelako konpentsazioak:** Hitzarmen bidez lortu beharra dago enpresek lan-istripua edo lanbide gaixotasuna izan duten langileei Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarria %100 ordaintzea, lan-istripu edo aldi baterako ezintasun kasuetan. Lanetik eratorritako kaltearen ondorioz lanpostuari eusteko bermea lortu behar da. Plusen ordainketarik ez dugu onartuko, prebentzio ekintzak ondo ezarri arte.

***Mutualitateak eta gertakari arrunten kudeatzea.** Gertakari arruntek (gaixotasun arrunta eta lanbidekoa ez den istripua) eragindako Aldi baterako Ezintasunari dagokion diru prestazioaren estaldura sistema publikoan mantendu dadila aldarrikatu behar da, bai eta gertakariek eragiten dituzten alten eta bajen osasun kontrola ere.

**ELA ha preparado un documento en materia de salud laboral a incluir en los convenios**

INGURUGIROA
MEDIO AMBIENTE

# Klima aldaketak ez du 2020 arte itxarongo!

HERRIALDE GARATUENETAKO GOBERNUEK KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO NEURRIAK HARTZEARI UKO EGIN ETA NEGOZIAZIOAK 2020 ARTE LUZATU DITUZTE

› AINHARA PLAZAOLA

**Dohan (Qatar) Nazio Batuen Klima Aldaketaren inguruko Gailurra bukatu berri da, COP18 deiturikoa.** Nazio Batuen aldeanitzeko negoziazioak urte asko doaz martxan eta COP deituriko Gailur bakoitzetik emaitzak espero izaten ditugu, baina ez dira sekula iristen. Oraingoa ez da salbuespena izan. Eragile sindikal, sozial eta ekologista ugarik, ELA barne, daramagu 2009an Kopenhagen izandako biltzarretik anbizio handiko akordio lotesle bat exijitzen. Akordio honek herrialde garatuenak eta garapen bidean daudenak konprometitu behar ditu, beti ere desberdintasunak eginez, ez baita berdina batak eta besteek klima aldaketan duten ardura.

Gure eskakizunak zientzialariek urte askotan zehar eskatu dutenean daude oinarrituta: 2020rako berotegi efektuko gasen murrizketak %25 eta %40 artean egon behar dute planetaren beroketa 2 gradutara ez iristeko. Helburu hau betetzeko ezinbestekoa da herrialde garatuenek finantzatzea garapen bidean dauden herrialdeen emisio murrizketak eta iraunkorragoak izateko beraien ekonomiaren eraldaketa. Gainera klima aldaketaren sorreran ardura handiena duten herrialdeak izanik, herrialde kaltetuenentzat diru funtsa jarri behar dute azken hauek, pazifikoko irlak adibidez, dagoeneko sufritzen dituzten ondorioetara egokitu ahal izateko.

**2009tik hona, non Kopenhagen akordio lotesle bat sinatu behar zen,** Gailur hauek ez dute negoziazio prozesua luzatu besterik egin. Kiotoko Protokoloa 2012ko abenduaren 31n iraungi zen, eta dagoeneko hurrengo konpromiso epealdia adosturik egon behar zen. Baina data hura iristeko hilabete eskas falta zela, Dohako COP18an ez zen anbizio handiko akordio loteslerik lortu, eta hamaikagarren luzapena sinatu zen. Ondorengo puntuetan laburtzen da sinaturikoa:

- Oraindik indarrean dagoen Kiotoko Protokoloa beste 7 urtez luzatzen da, 2020 arte, orduan sartuko baita indarrean Kiotoko Protokoloaren bigarren epealdia.
- Japon, Errusia eta Kanada bezalako herrialde kutsatzaileek, Kiotoko Protokoloaren parte zirenak, ez dute luzapena onartu. Beraz, hurrengo 7 urteetako konpromisoek mundu mailako emisioen %15ari bakarrik eragingo diote.
- Emisio eskubideen merkatua bezalako konpentsaziorako mekanismoak indarrean jarraituko dute.
- 2014 aurretik herrialde bakoitzak Kiotoko Protokoloaren bigarren epealdian, 2020tik aurrera eta 7 urteko atzerapenarekin, hartuko dituzten emisio murrizketa konpromisoak zehaztu behar dituzte.




- Herrialde garatuenek klima aldaketaren sortzaile nagusiak direla eta klima aldaketaren ondorioak gehien sufritzen dituzten garapen bidean dauden herrialdeekiko duten ardura onartu gabe jarraitzen dute. 2013 arte atzeratu dira garapen bidean dauden herrialdeei emisioak murrizteko, klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko eta ekonomia transformatzeko eman beharreko finantziazio fondoen negoziazioa.

**Porrot gehiagorik ez!** Kontuan izanik Kopenhagen 2009an Kiotoko bigarren epealdirako emisio murrizketak jada zehaztu behar zirela eta epealdi hau 2013an sartu behar zela indarrean, zazpi urteko atzerapena daramagu. Klima aldaketa zain egongo ez den zazpi urte, konfirmazio zientifikoa gero eta handiagoa denean, herrialde eta pertsona ahulenek beste zazpi urtez klima aldaketaren ondorio izugarriak sufrituko dituzte: itsasoaren mailaren igoera, uholdeak, euriteak, lehorteak, gosea, migrazioak... Baina badirudi ezbehar hauek ez zaizkiela axola herrialde garatuenei, arazo honetan beraiek duten ardura ere ez baitute onartzen.

Nazio Batuen Klima Aldaketarako Gailurraren beste porrot baten ondoren ezin gara 2013an Varsovian egingo den COP19an beste luzapen bat adosteko zain geratu. ELAk berotegi efektuko gasen benetako murrizketak egiteko behingoz neurriak hartzea exijitzen du, tranparik eta konpentsazio mekanismorik gabe, eta klima aldaketaren sorreran ardura gehien duten herrialdeek herrialde ahulenen murrizketa eta ondorioen egokitzapena finantzatu dezatela eskatzen du.

ELAk krisi klimatiko, ekologiko, sozial eta ekonomiko honen irtenbide bakar bezala ekonomiaren benetako transformazioa defendatzen du, berotegi efektuko gasik isurtzen iz dituzten sektoreak indartu behar dira enplegu iraunkorrak sortzeko. Inoiz baino beharrezkoagoa da ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredua aldatzea, eta justizia sozialarekin egitea, beste modurik ez baitago krisi honetatik irteteko.

**Los países más desarrollados siguen sin reconocer que son los mayores causantes del cambio climático y que tienen una responsabilidad para con los países en vías de desarrollo, los más vulnerables a sufrir sus efectos**

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS

# Derrigorrezko arbitrajea



› HAIMAR KORTABARRIA

**Patxi Lopezen gobernua jardunean zegoela, hots, agintaldiko azken egunetan, PSE hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzen salbuespenari buruzko desadostasunak ebazteko euskal batzordea sortzeko dekretua tramitatzen hasi da.** Dekretu horrek EAEn hitzarmen kolektiboak aplikatzeari uzteko prozedurari irtenbidea ematen dio. Gaur egun, eta dekretu hori indarrean sartzen ez den bitartean, ezinekoa da, langileen adostasunik gabe, hitzarmen kolektiboan jasotako lan baldintzak aplikatzeari uztea.

Enpresari batek lan hitzarmena aplikatzeari utzi nahi badio, prozedura bat jarraitu beharra du. Kontsulta epe bat zabaldu behar du langileen ordezkariekin akordio batera iristeko helburuarekin. Adostasunik egon ezean, Langileen Estatutuak desadostasun horri buruz Hitzarmen Kolektiboen Estatuko Batzorde Aholkulariari galdetzea ahalbidetzen du eta horrek, bere baitan edo arbitro bat izendatuz, hitzarmena aplikatzeari uzteko kausarik dagoen edo ez erabakitzen du.

Estatuko erakunde horrengana jo ahal izateko, ordea, hitzarmena aplikatzeari uzteko neurri horrek autonomia erkidego bat baino gehiagotan dauden lantokietako langileei eragin behar die. Hau zeharo garrantzitsua da, izan ere, neurriak EAEko langileei soilik eragiten badie enpresariak ezin du Estatuko Batzorde Aholkularira jo eta, EAEn nahitaezko arbitrajerik araututa ez dagoenez, desadostasunari buruz ezin du hirugarren batek erabaki eta prozedura blokeatuta geratzen da. Enpresaria hitzarmena aplikatzeari uzteko aukera gabe geratzen da.

PSE tramitatzen hasi den dekretuak prozeduraren *blokeo* horri aterabidea ematen dio. EAEko enpresa bateko langileei hitzarmena aplikatzeari uzteko orduan, langileen ordezkariekin adostasunik ez badago, desadostasuna hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzen salbuespenari buruzko desadostasunak ebazteko euskal batzordera eramateko aukera jasotzen du dekretuaren proiektuak, batzorde horrek bere baitan (4 ordezkari administrazioak, 4 sindikatuek eta 4 patronalak; presidenteak, gobernuak aukeratua, kalitatezko botoa duelarik) edo berak izendatutako arbitro baten bidez (derrigorrezko arbitrajea) erabakidezan.

**PSOE, Auzitegi Konstituzionala eta derrigorrezko arbitrajea.** PSOE oso kritiko azaldu izan da PPren erreformaren aurrean eta, are gehiago, erreformaren beraren artikulu bat baino gehiagoren konstituzionaltasuna zalantzan jarri du, eta ez bakarrik iritzi publikoaren aurrean. Izan ere, Auzitegi Konstituzionalean errekurtsoa jarri zuen, besteak beste, nahitaezko arbitrajearen aurka.

Nola uler daiteke, beraz, PSOEk estatu mailan nahitaezko arbitrajea Auzitegi Konstituzionalean aurkaratu eta PSE EAEn nahitaezko arbitrajeak bideratuko dituen batzordearen bultzatzaile izatea? Borondaterik onenarekin ere ezin da tamaina horretako kontraesanik ulertu.

Hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzen salbuespenari buruzko desadostasunak ebazteko euskal batzordea, hau da, EAEn lan hitzarmenak ez aplikatzeko bidea abian da dagoeneko. Ikusteko dago gobernu berriak afera honi nola heltzen dion. Guk, batzorde horren sorrerarako dekretuaren tramitatzea bertan behera uztea eskatu dugu.

## ELA rechaza el arbitraje obligatorio ante discrepancias sobre la inaplicación de las condiciones de trabajo de los convenios

## ARBITRAJE OBLIGATORIO

**El PSE, antes de abandonar Ajuria Enea y estando ya en funciones,** inició la tramitación del proyecto de Decreto de creación de la Comisión Vasca de Resolución de Discrepancias sobre inaplicación de las condiciones de trabajo de los convenios colectivos, que abre la puerta a los arbitrajes obligatorios en la CAPV.

En ausencia de este Decreto, las inaplicaciones del convenio colectivo son inviables si no media el consentimiento de los trabajadores; el Proyecto de Decreto pretende que esa nueva Comisión resuelva, en su seno (4 miembros de la Administración, 4 de los sindicatos y 4 de la patronal) o nombrando un árbitro, las discrepancias sobre la inaplicación del convenio.

# CONSULTORIO JURIDICO

# Subrogación, una necesidad ante tanta subcontratación

**La subcontratación, muchas veces en cadena, es hoy día una de las características principales del mercado de trabajo.** Esta posibilidad de externalizar actividades atiende, primordialmente, a la voluntad de abaratar costes laborales. Es un hecho cierto que los trabajadores/as subcontratados tienen, en la inmensa mayoría de los casos, peores condiciones de trabajo que aquéllos contratados directamente por la empresa principal.

El uso de la subcontratación es habitual tanto en las empresas privadas como en las administraciones públicas, y afecta, especialmente, al sector servicios.

En este contexto, la subrogación debe ser una garantía ante los múltiples abusos que se llevan a cabo a través de la subcontratación: cesiones ilegales de trabajadores, contratación temporal fraudulenta, reversiones sin garantías de empleo, etc.

**Subrogación legal y subrogación convencional.** La subrogación legal es la que se produce por exigencia del art. 44 ET, por darse el presupuesto de hecho de la norma, o sea, la existencia de traspaso de una empresa, un centro de trabajo o de una unidad productiva autónoma; y que opera con independencia de que exista o no garantía de subrogación en convenio. La no existencia de garantía en convenio no quiere decir que no haya derecho a la subrogación en virtud del art. 44 ET si se produce el supuesto de hecho.

La subrogación convencional es la que se produce por aplicación de lo que dispone el convenio, para el caso de que no estemos estrictamente ante un supuesto de traspaso de empresa, centro de trabajo o unidad productiva autónoma. La garantía de subrogación en convenio (con un alcance normalmente limitado respecto de lo que dispone el art. 44 ET) no quiere decir que en un caso concreto el régimen de subrogación deba ser el del convenio, y no el del art. 44 ET. Un ejemplo es el de Customer-Konecta. La empresa pretendía la aplicación del régimen de subrogación recogido en el convenio de telemarketing, y ELA la aplicación del régimen de subrogación del art. 44 ET. Muchas veces la incorporación de una determinada garantía de subrogación en convenio sirve de coartada a las empresas para negar la existencia de un verdadero traspaso de empresa, centro de trabajo o unidad productiva autónoma, y la aplicación de la subrogación con el alcance del art. 44 ET. El TS ya ha advertido que el régimen de la subrogación del convenio no impide la aplicación del art. 44 ET.

**Traspaso de empresa, centro de trabajo o unidad productiva autónoma.** Para la interpretación de lo que hay que entender por traspaso de empresa, centro de trabajo o unidad productiva autónoma y, por tanto, para apreciar la existencia del presupuesto para la aplicación del art. 44 ET hay que tener en cuenta la Directiva europea sobre mantenimiento de los derechos de los trabajadores en caso de sucesión de empresas.

La sucesión de contratas de servicios no constituye, normalmente, traspaso de unidad productiva autónoma. Pero, de acuerdo con la doctrina del TJUE, hay una interpretación extensiva en actividades que descansan, fundamentalmente, en mano de obra y, por ejemplo, el TS en la sentencia de 7/12/2011 (RJ 2012/206) aprecia traspaso de unidad productiva autónoma en un supuesto de sucesión de contratas de servicios auxiliares y accesorios de un aeropuerto, al considerar que la sucesión de plantillas suponía la sucesión de una entidad económica o unidad productiva autónoma.

En otros supuestos (STS de 28/04/2009, RJ 2009/2997) el TS considera que la actividad no descansa fundamentalmente en la mano de obra, y el traspaso de plantilla no supone el presupuesto de hecho para la aplicación del art. 44 ET.




## DISCRIMINACIÓN DE LAS TRABAJADORAS A TIEMPO PARCIAL

**El Tribunal de Justicia de la Unión Europea, en sentencia de 22 de noviembre de 2012, ha declarado que la Disposición adicional séptima de la Ley General de la Seguridad Social sobre reglas sobre cotización de los trabajadores contratados a tiempo parcial implica una discriminación indirecta de la mujer, puesto que exige a los trabajadores a tiempo parcial, en su inmensa mayoría mujeres, un mayor período de cotización respecto al trabajador a tiempo completo –aún con el factor de corrección que supone el multiplicador 1,5– para acceder a una prestación que ya es, proporcionalmente, más reducida.**

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL




# Pobrezia gora

POBREZIAK NABARMEN EGIN DU GORA KRISI GARAIAN, ETA GOBERNUEK, BESTE ALDE BATERA BEGIRATZEAZ GAIN, ERAGIN ZUZENA DUTE ZORITXAR HONETAN

› JULENE GABIOLA

**Krisiaren ondorioetako bat pobreziaren eta gizarte desberdintasunen areagotzea da.** Langabezia igo egin da, soldaten eta pentsioen eros-ahalmena jaitsi egin da, prestazio sozialak murriztu egin dira, eta guzti honek eragin zuzena du. Hala, gero eta jende gehiago dago oinarrizko beharrizanak bete ezinik. Egoera oso larria da hainbat pertsonentzat. Eta hala erakusten dute datu publikoek.

**Pobrezia eta elikatze arazoak igo egin dira Euskal Autonomi Erkidegoan.** Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2012 txostenak* erakusten du 2012an 157.686 pertsona izan direla pobrezia arriskuan, hau da, oinarrizko beharrizanei aurre egiteko diru sarrera nahikorik gabe (janaria, jantziak, oinetakoak edo etxea, adibidez). Beraz, biztanleriaren %7,3a bizi da pobrezia arriskuan dauden etxeetan, %77,9a hazi delarik 2008az geroztik. Azken 25 urteotako zenbatekorik handiena izan da hau.

## Una de las consecuencias más palpables de la crisis es el incremento de la pobreza y las desigualdades sociales

## Los hogares en riesgo de pobreza han crecido un 78% desde 2008, la cifra más alta de los últimos 25 años

Beste alde batetik, 100.000 pertsona baino gehiago daude elikatze arazo larriekin. Azpimarragarria da 46.122 pertsona gosea sentitu duten etxeetan bizi direla; etxeen %2,1an gosea sentitu da, 2008tik %116,8ko igoera eman eta gero. Datu hau ere 1996a geroztik altuena da.

Inkesta honen arabera, 100.000 pertsonek independizatzeko nahia adierazten dute baina ezin dute baliabide ekonomiko ezagatik, hau da, estalitako pobrezia egoeran bizi dira. Independizatzeko prest legokeen, baina baliabide ekonomikoen ezak uzten ez dieten pertsona kopuruak %6a egin du gora azken lau urteotan,

## En la CAPV hay 100.000 personas a las que les gustaría independizarse pero carecen de medios para ello

nahiz eta gazte kopurua murriztu egin den. Hala, familia pobrezia ekiditeko laguntzan bilakatzen da, eta horregatik ez balitz, independizatutako pertsona hauek portzentai handi batean pobrezian egongo lirateke. Familiaren laguntzak beraz, pobreziaren zenbatekoak txikitzen laguntzen du.

Txostenak erakusten duen beste gauzetariko bat zera da, badaudela pobrezia eta arazoek era larriagoan jotzen dituzten kolektiboak, hala nola, immigrante extrakomunitario, familia monoparental, edo lan egonkor gabeko pertsonen etxeetan bizi diren biztanleak.

### NAFARROAN ERE POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETAK NABARMEN EGIN DU GORA

**Nafarroako egoera aztertzeko, EAPNk** (*Red Europea de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social*) argitaraturiko datuei erreparatu behar diegu. Datu hauen arabera, Nafarroako biztanleriaren %13,1a dago pobrezia eta gizarte bazterketa egoeran, duela urte bi baino 3,4 puntu gehiago. Hau da, egoera honetan dauden biztanle kopurua 75.843 pertsonatan igo da urte bitan.

**Gobernuak, arduradun.** Egoera honen ardura botere publiko, ekonomiko eta finantzieroarena da. Ados jarri dira justua ez den aberastasunaren banaketa ezartzeko, gizarte eta lan eskubideak murrizteko, presio fiskala jaisteko (iruzur fiskala baimenduz eta errenta altuei eta kapitalari zergak jaitsiz). Gobernuek botere ekonomiko eta finantzieroak eskatutako guztia egin dute, izugarrizko funts publikoen transferentziak barne (216.000 milioi estatu espainiarrean, biztanleko 4.500 euro).

Gobernu desberdinek, Hego Euskal Herrikoak barne (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Foru Aldundiak) politika neoliberal hauek aplikatu dituzte. Hemen onartzen ari diren aurrekontu eta fiskalitate politikak norabide horretan doaz.

## Los culpables de esta situación son los poderes públicos, económicos y financieros

## NECESITAMOS UN GIRO DE 180 GRADOS EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS PARA ATAJAR LA POBREZA Y LAS DESIGUALDADES




**Las cosas no tienen por qué ser así.** Pueden y deben ser distintas, para lo que necesitamos otras políticas. Para atajar la pobreza y la desigualdad es necesario:

- **Aplicar políticas presupuestarias anticíclicas**, que impulsen el empleo digno, el bienestar y la economía a través de la mejora de los servicios y coberturas públicas (prestaciones sociales, sanidad, educación, servicios sociales, vivienda social,...).
- **Mejorar el poder adquisitivo de los trabajadores y trabajadoras e impedir la precariedad laboral.** Tener un empleo estable y en condiciones de trabajo dignas es un buen antídoto contra la pobreza. Aumentar la precariedad laboral y empeorar los salarios y las condiciones de trabajo aumentan el riesgo de pobreza.
- **Aumentar las prestaciones sociales.** La Renta de Garantía de Ingresos (RGI), en la CAPV, y la Renta Básica, en Navarra, deben superar el umbral de la pobreza, y las Ayudas de Emergencia Social deben ser un derecho reconocido, mejorando la actual regulación. Asimismo, se ha de dar marcha atrás en los recortes aprobados en los últimos años, que han reducido las cuantías y han dejado sin derecho a prestación a muchas personas (incluidas muchas personas inmigrantes).
- **Modificar la política fiscal para equiparar la presión fiscal a la media europea,** mediante la lucha contra el enorme y creciente fraude fiscal existente en las rentas no salariales y el aumento de la presión fiscal a las rentas altas y al capital (en el IRPF y el Impuesto sobre Sociedades). Sólo así podremos disponer de los fondos necesarios para las políticas que reivindicamos.
- **Prohibir los despidos en empresas con beneficios.** Es inmoral e inaceptable socialmente la práctica, cada vez más habitual, de empresas con beneficios que plantean expedientes de regulación de empleo. Esta situación también agrava la pobreza.

## KRONIKA DE LA A A LA Z




# Ontzi berean doaz?

› GORKA QUEVEDO

**Estitxu. 23 urte. Inditex taldeak Bilbon duen arropa dendetako batean lan egiten du.** Aldi-baterako kontratua du, eta lanaldi-partziala. Aurreko astean bere lankide Martari kaleratu egingo zutela adierazi zioten, krisiaren ondorioz salmentak jaitsi egin direla argudiatuta. Estitxuk badaki bera ere edozein unetan kaleratu dezaketela lau sosen truke, lan-erreforma aplikatuz. **Amancio.** Inditex kateko arduraduna. Europako pertsonarik aberatsena eta munduko hirugarrena. 2012an mundu zabalean bere ondasuna gehien handitu duen pertsona. Baina badago Estitxu eta Amancio lotzen dituen gauza bat. Biak ontzi berean doaz eta elkarrekin egin behar dute arraunean. Aurtengoa urte gogorra izango da: gerrikoa estutu eta sakrifizioak egin beharko dituzte. Eutsi bikote!

**A › Akordioa:** Abenduaren 18an CiU eta ERC alderdiek gobernagarritasun akordioa sinatu zuten. Akordioaren ondorioz Artur Mas izango da Generalitateko presidentea. Gainera, bi alderdiek 2014. urtean Kataluniako herritarrek euren etorkizuna libre eta demokratiko hautatzeko galdeketa ere adostu dute. Berri pozgarria. Ea gurean eraginik duen.

**B › Borroka:** Borrokatzeak merezi du. Hamaika aldiz aipatu ohi dugun esaldi horren bi adibide izan ditugu berriki. CAF-eko zuzendaritzak 869 langileei eragiten dien suspentsio erregulazio txostena bertan behera uztea erabaki du. Bestalde, Laudioko Guardian enpresako zuzendaritzak 139 langile botatzeko espedientea erretiratu du, 60 egunetako grebaren ostean. Era berean, lan erreformaren neurri gogorrenak indargabetzen dituen hitzarmen kolektiboa sinatu da.

**C › CEOE:** Urte askotan Espainiako CEOE patronalaren buru izandako Gerardo Diaz Ferranek kartzelan jarraitzen du, ondasunak ezkutatzea eta dirua zuritzea egotzita. Diaz Ferranek beste bi auzi ditu dagoeneko Auzitegi Nazionalean, eta beste zenbait prozedura hainbat merkataritza-epaitegi eta auzitegi penaletan.

**D › Depardieu:** Belgikan finkatu du bere erresidentzia eta Putinek errusiako herritartasuna eman dio Gerard Depardieu aktore frantziar ezagunari. François Hollandek gehien dutenek gehiago ordain dezaten helburu duen zerga eredu berria onartzeko asmoa iragarri zuenetik ekimen honen kontrako borrokan buru-belarri murgildu da Depardieu. Aktorea herrial-

**Ni vamos en el mismo barco ni al mismo sitio**

deko hainbat aberats handiren bozeramaile bilakatu da, zerga eredu berriaren kontrako mugimenduaren irudia. Oraingoz aberatsetan aberats horiek badute pozik egoteko beste arrazoi bat. Frantziako Auzitegi Konstituzionalak *aberatsen* kontrako zerga legearen aurkakoa dela erabaki du.

**E › Erretiroa:** Urteko lehen egunean erretiroa hartzeko adina 67 urtetara igotzen duen pentsioen erreforma indarrean sartu zen Espainiar Estatuan. Eraso hau gutxi iruditu ez eta Rajoyren gobernua erreforma berria prestatzen ari da.

**F › Familia:** 12.076 familia. Hori da Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren azken txostenaren arabera Hego Euskal Herrian 2008ko urtarrilaren 1etik 2012ko irailaren 30era bitartean euren etxeetatik kanporatu dituzten familiak, hipoteka ezin zutelako ordaindu. Gainera, gizarte-bazterketaren kontrako plataformek salatzen dutenez kopuru hori handiagoa da, estatistika ofizialek ez dituztelako kasu guztiak jasotzen. Edozein kasutan ere, gurean milaka lagunek bizi duten ataka larriaren beste adibide bat.

**G › Gosea:** Ez gara Afrikako adarra deitutakoaz mintzo, Euskal Herriaz baizik. Eusko Jaurlaritzaren *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko* txostenaren arabera 2012an 50.000 pertsonek gosea pasatu zuten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Egungo politika publikoek jarraitzen badute, ez izan zalantzarik datozen urteetan kopurua handitu egingo dela.

**H › Hogei:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta tamaina ertain-txikiko hainbat udalerriren salbuespen txalogarria salbu, gainontzeko administrazioek Gabonetako aparteko paga ez ordaintzea erabaki dute, Rajoyren dekretua ontzat emanaz. 2012ko paga guztiak ordaindu ez duten erakundeetako langileen soldatek euren eros ahalmenaren ehuneko hogeia galdu dute azken hiru urteetan.

**I › Iberdrola:** Boliviako gobernuak Iberdrolak herrialdean dituen lau filialen desjabetzea agindu du. Etorkizunean Estatuak kudeatuko ditu lau enpresa hauek, bertako herritarrek argindarra arrazoizko prezio batean izan dezatela bermatzeko.

**J › Jornala:** Desjabetzeak aipatu ditugu. Gosea ere. Eta hauei lotuta berriki ezagutu ditugun 2012ko langabeziaren datu beldurgarriak. Hego Euskal Herrian iragan urteko abenduaren 31n 221.027 ziren lana egin nahi eta lanik ez zuten lagunak, populazio aktiboaren %16,64a. Politiken aldaketa erradikala behar da. Bestela, gero eta gehiago izango dira hilabete bukaeran etxera jornala eraman ezin izango duten pertsonak.

**K › Kartzela:** Esparru ezberdinetatik greba eskubidearen aurka daramaten borroka gero eta nabarmenagoa da. Gutxi barru atal berri bat biziko dugu epaitegietan, 2011ko urtarrilaren 27an deitutako greba orokorrean parte hartu zuen Gernikako pikete baten kontrako 18 lagunen epaiketan. Fiskaltzak orotara 72 urteko kartzela-zigorra eskatzen du, lagun horiei zer leporatzen dieten argitu gabe.

## Cuando hablamos de hambre no hay que mirar muy lejos

**L › Luxenburgo:** Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan bizi bazara informazio honek zuzen-zuzenean eragingo dizu: *Opor fiskalak* deitukoengatik isuna 57 milioi eurotakoa zen urteko lehen egunean. Luxenburgoko Epaitegiaren behin-betiko epaia udaberrian jakingo da, laguntza horiek legez kanpokoak zirela esaten zuen epaia errekurrituta baitago. Bere garaian Foru Aldundiek izandako jarrera lotsagarria lepotik ordaintzen ari dira gure patrikak.

**M › Martin:** Espainiako Auzitegi Nazionalak ebatzi du Aurore Martinek ez duela espetxean behar, espetxeratzeko arrazoirik ez zegoela argudiatuz. Frantziako poliziak azaroan atxilotu zuen Aurore, ordu gutxiren burura Espainiako poliziaren eskuetan uzteko. Agerian gelditu da atxiloketa bidegabe horren atzean soilik arrazoi politikoak zeudela.

**N › Nafarroa:** Urte amaieran egiten duen ohiko agerpen instituzionalean Yolanda Barcina pozik agertu zen egindako lanaz. Hartutako neurriak eta erabakiak txalotu zituen, eta baten-bat mingarria izan zitekeela onartu arren, bide-onetik aurrera jarraitzeko ezinbestekoa izan dela aipatu zuen. Hona hemen urteko balantzea egiteko beste modu bat, datu ofizialetan oinarrituta: 3 greba orokor, murrizketen kontrako 920 protesta ekintza, lan gatazkekin lotura duten 590 protesta ekintza, Nafarroako gobernuaren politiken kontrako 178 mobilizazio...

**O › Onartezina:** "Delitu zantzuak zeuden bakoitzean erreakzioa beti bera zen: begiak itxi eta bestaldera begiratu". Hori da Espainiako Bankuko Ikuskatzaileen Elkarteak egin duen salaketa. Bankaren eta politikoen esku-sartzea eta euren lana egiteko jartzen dizkieten trabak ere salatu dituzte. Onartezina da salatzen dena, baina onartezinagoa arazoa konpontzeko neurririk hartu nahi ez izatea.

**P › Presoak:** Urtarrilaren 12an manifestazio erraldoia zegoen deituta Bilbon *Giza-eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. –*Landeia*ren hau bezperan itxi zen–. Estatu espainiar eta frantsesak euskal preso politikoekiko aplikatzen duten espetxepolitika bidegabea da, gizalegearen eta zuzenbidearen aurkakoa. Konponbidearen bidean mobilizazioak berebiziko garrantzia daude. Ekin bideari!

## En Iparralde pronto funcionará el eusko, una moneda local que quiere ser una alternativa al capitalismo

**R › Rato:** Zerbitzu publikoak eskaintzen zituzten enpresak lagunei pribatizatu zizkien; mundu zabalean politika neoliberal ankerrenak inposatzen dituen Nazioarteko Moneta Funtsaren arduradun izan zen; Hego Euskal Herriko herritarren poltsikoetatik ere salbatua izan den Bankiako presidente ere izan zen, eta bere ankerkeria larrienen arduradun. Orain, hori guztia eskertzeko, Telefonicak –bere garaian berak pribatizatuko enpresetako bat– Rodrigo Rato fitxatu du aholkulari gisa. Kapitalismoa zer den eta nola funtzionatzen duen ulertzeko adibide argigarria.

**S › Santiago:** Nafarroako politikari ezagun bat. Mailing misteriotsu bat. Herrialdeko aurrezki-kutxako azpijokoen informazioa jasotzen duen gutun-azal bat. Informazioa jasotzen duen gutun-azala harresi bateko zirrikitu baten gordeta dago. Politikaria gutun-azala jasotzera doa. Sorpresa. Mihiluze batek dena kontatu dio Guardia Zibilari. Politikaria atxilotzen dute. Aurrezki-kutxako arduradunak xantaia salatzen du. Ez, ez, ez. Ez da zinema-aretoetara heldu den azken film arrakastatsuaren gidoia. Bene-benetan gertatu da. Aktore izarra PPk Nafarroan zuen arduradun Santiago Cervera protagonista duen istorioa.

**T › Txanpona:** Urtarrilaren 31an martxan izango da Ipar Euskal Herrian euskoa. Bertako ekonomia bultzatu, ingurumena defendatu eta bestelako ekonomia eredu bat bultzatzea dira helburuak.

**U › Urkullu:** Abenduaren 13az geroztik Iñigo Urkullu da Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari berria. Agerikoa da bizi dugun abagune sozial eta ekonomikotik ateratzeko errotikako aldaketak behar direla. Orain artekoek porrot egin dute. ELAk baditu proposamenak eta alternatibak. Gustura asko azalduko dizkiogu.

**V › Venezuela:** Venezuelako presidente Hugo Chavez Habanako erietxe batean dago, duen minbiziak sortutako osasun arazo larrien ondorioz. Hego Amerikak azken hamarkadetan neoliberalismoaren eta bere ondorio lazgarrien aurka daraman borroka prozesuaren ikurretako bat da Chavez. Bere aurkarien zerrenda ikusi besterik ez dago.

**X › XIII:** Urtarrilaren 23tik 24ra ELAk bere XIII. Kongresua egingo du Bilboko Euskalduna Jauregian. Hurrengo urteetarako estrategia eta bera zuzenduko duten kideak aukeratzeko zita garrantzitsua.

**Z › Zita:** CCOO eta UGTko idazkari nagusiek eskutitz bana bidali berri diete CEOE patronalari, Espainiako Gobernuburuari eta oposizioko alderdi nagusiaren arduradunari. Zita bat eskatzea izan da helburua. Gizarte elkarrizketari berregiteko zita bat eskatu dute, hain-justu. Dagoeneko Joan Rosellek baietz esan die. Ezinezkoa den eta porrot egin duen maitasun batean tematuta jarraitzeko zita.

# Más independientes y fuertes que nunca

AMAIA MUÑOA, SECRETARIA GENERAL ADJUNTA Y TESORERA, DESVELA LOS GRANDES NÚMEROS DEL SINDICATO: ELA LLEGA AL XIII CONGRESO CON LA TASA DE SINDICACIÓN -10,34- Y DE AUTONOMÍA FINANCIERA -POR ENCIMA DEL 90%- MÁS ALTAS DE SU HISTORIA

› N.I.

**-Como tesorera y secretaria general adjunta te corresponde defender en el Congreso la gestión realizada durante el último cuatrienio sobre dos aspectos vitales para el sindicato: afiliación y autonomía financiera. ¿Qué es lo más significativo que ha ocurrido con la afiliación desde el tercer trimestre del 2008 al tercer trimestre de 2012?**

-La afiliación está, en gran medida, ligada al empleo, y la principal característica de este periodo ha sido, precisamente, la destrucción de empleo. En concreto, 127.500 personas han abandonado el mercado laboral, un 12,3%. Y su consecuencia más directa para nosotros es que el saldo de afiliación de este periodo refleja una reducción en 4.006 personas, esto es, un 3,66%. A 30 de septiembre de 2012, éramos 105.312 afiliados/as a ELA.

Un sindicato como ELA, basado en la afiliación, no puede dar por buen este dato, pero si lo analizamos desde una perspectiva global no es tan negativo como podría parecer. De hecho, tenemos en estos momentos la tasa de sindicación más alta de nuestra historia –el 10,34%, casi un punto superior a la del último Congreso–, ya que la evolución de la afiliación ha sido más positiva que el de la población asalariada.

Evidentemente, nos hubiera gustado tener unas cifras de afiliación netas en positivo, y tenemos que trabajar con la vista puesta en ese objetivo, pero en la coyuntura actual lo logrado tiene muchísimo valor. Durante estos cuatro años se ha hecho un trabajo ingente para llegar a la clase trabajadora y, de hecho, ha habido muchas altas.

**-Acércanos al perfil del afiliado/a de ELA en estos momentos.**

-Al analizar la afiliación intercongresual desde la perspectiva de género, hay que destacar que las mujeres han aumentado en números absolutos y que, en consecuencia, hay una diferencia de 6 puntos en la composición (hombres-mujeres) de la afiliación. En estos momentos, somos un 40% de mujeres y un 60% de hombres.

**2012ko irailaren 30ean ELAk 105.312 afiliatu zituen. Gure historiako afiliazio-tasarik altuena dugu, %10,34**

La diferente evolución del empleo por sectores tiene consecuencias en la afiliación de las federaciones. Gizalan y Zerbitzuak han crecido mientras Metala y Hainbat –las industriales– han perdido afiliación. La diferente evolución ha provocado, también, cambios en el peso de cada federación: por primera vez, Gizalan es la federación con mayor número de afiliados/as.

El peso del desempleo –por encima del 40%– se aprecia con claridad en la evolución de la afiliación de jóvenes en este período. Difícil lograr un rejuvenecimiento de nuestra base afiliativa con las dificultades de la gente joven para acceder al mercado de trabajo y cuando son, por otra parte, los primeros en salir: eventuales.

Finalmente, al clasificar los afiliados y afiliadas ocupados por tipo de empresa, destacar que el 44% trabaja

## EVOLUCIÓN AFILIACIÓN 2008-2012 »

| FEDERAKUNDEAK | 2012 | % | 2008 |
|---|---|---|---|
| METALA | 29.163 | 27,69 | 31.571 |
| GIZALAN | 30.017 | 28,50 | 29.901 |
| ZERBITZUAK | 26.142 | 24,82 | 24.909 |
| HAINBAT | 19.990 | 18,98 | 22.937 |
| **Total** | **105.312** | **100** | **109.318** |



## Krisian ere, afiliazioa gehitzen ari da Zerbitzuak eta Gizalango sektorerik prekarioenetan ere

en pymes mientras que el 56% lo hace en la gran empresa.

En resumen, nuestros datos reflejan que ELA está muy arraigada entre la clase trabajadora y el conjunto de la sociedad vasca, así como que tiene una base sólida y una afiliación homogénea y equilibrada.

**-Resulta interesante observar que a pesar de la profunda crisis que estamos viviendo dos federaciones Zerbitzuak y Gizalan han crecido en afiliación.**

-Los datos de afiliación demuestran que el trabajo sindical en sectores precarizados está dando sus frutos, a todos los niveles. Incluso en estos tiempos está subiendo la afiliación en los sectores más precarios de Zerbitzuak y de Gizalan.

Tenemos que dar mucho valor a lo que estamos haciendo, más en tiempos de crisis. ELA está junto a quien lo necesita y quiere cambiar las cosas; hablamos de los problemas reales. Y

## ELAk ETEetan duen ezarpena da bere eredu sindikalaren ezaugarrietako bat; honek eman behar digu datorren negoziazio kolektiboari ekiteko indarra

ese es nuestro reto sindical: seguir haciéndolo.

**-Es importante resaltar que ELA ha permitido, incluso, que un tercero -distintos medios de comunicación- hayan realizado un auditoría sobre los datos de afiliación aportados. ¿Por qué?**

-El principal objeto de esta auditoría es la transparencia y la credibilidad. En muchas ocasiones leemos datos proporcionados por otras organizaciones que llaman mucho la atención, por no decir otra cosa. Por contra, nosotros nos alejamos de esa fiesta de los números y permitimos que terceros acrediten que la información que ofrecemos es cierta.

El proceso de certificación se ha realizado ante los medios de comunicación en tres ocasiones: el 22 de junio de 1993, el 11 de noviembre de 2004 y la última ocasión fue el pasado 11 de diciembre.

Creo que sería positivo que otras organizaciones sindicales, sociales y políticas se atrevieran a hacer públicos sus números reales, porque eso permitiría elevar el nivel de credibilidad ante la opinión pública y hacer análisis más certeros de lo que pasa.

En nuestro caso –más allá de declaraciones interesadamente manipuladoras– es público y reconocido tanto nuestro nivel de afiliación como de autonomía financiera. Y lo es porque lo hemos demostrado.

**-Con el modelo de negociación colectiva que nos viene, ver la fuerte implantación de ELA en las pymes es un dato para la esperanza.**

-La implantación de ELA en las pymes –importante, aunque nos gustaría que fuera aún mayor– ha sido siempre una de las características del modelo sindical de ELA.

Históricamente, desde el sindicalismo internacional se hablaba de las dificultades para llegar a las pequeñas empresas mientras nosotros íbamos implantándonos en muchas de ellas.

ELA lleva tiempo realizando un trabajo sindical específico en las pymes que está dando resultados muy interesantes.

Ahora, con la nueva realidad de la negociación colectiva, en la que el convenio de empresa es el único que realmente va a blindar nuestras conciones laborales, esa base nos debe servir de catapulta para sindicalizar empresas y luchar por los convenios, también en las pymes.

Y ante aquellos que se están rindiendo de antemano, hay que decir que es posible sindicalizar las pymes, que llevamos tiempo haciéndolo, que hay resultados y que, además, es imprescindible.

# "Solventes, autónomos y preparados para la pelea"

LA CAJA DE RESISTENCIA HA ESTADO TRAS LA CONVOCATORIA DE **MÁS DE 480** HUELGAS Y CONFLICTOS EN EL ÚLTIMO CUATRIENIO



**-Hablemos ahora de los datos económicos en 2008-2011. ¿Qué ha sido lo más destacable en este periodo?**

-Lo más destacable es que las cuotas han seguido ganando peso –el 88,9% de los ingresos– y que nuestra autonomía financiera sobrepasa ya el 90%.

En los ingresos, el dato clave para ELA es la evolución del peso de la cuota, que ha pasado del 85,7% al 88,9%, esto es, un incremento de 3,2 puntos. Se debe a dos razones: por un lado, los ingresos procedentes de cuotas han aumentado el 24,7%; por otro, la partida de participación institucional se ha reducido en un 45,3%.

Hay que recordar que en 2005 empezamos a suspender nuestra presencia en una serie de órganos de participación institucional en la CAPV por la pretensión, por parte de los poderes públicos, de utilizarlos para legitimar sus políticas, en concreto, Hobetuz, CRL, CES y Osalan, de ahí el descenso radical de ingresos por ese capítulo.

La autonomía financiera y política es central en el modelo sindical de ELA, así que estos datos nos hacen sentirnos muy satisfechos. Esta consolidación de la autonomía da una solidez enorme al proyecto, tanto en términos de desarrollo de la acción sindical como de la negociación colectiva.

Destacar, finalmente, que los datos económicos son auditados por una comisión de control, nombrada cada 4 años.

**-ELA tiene tres tipos de cuota: la B, de 18,17 euros al mes; la M, de 13,64 y la P, de 9,08 (año 2012). ¿Somos un sindicato caro?**

-Yo creo que no. Intentamos dar buenos servicios, intentamos atender, asesorar y defender bien a la gente, tanto a través de la acción sindical como trabajando por un determinado modelo de sociedad, y eso tiene un coste. Las cuotas de los afiliados/as suponen la garantía para un proyecto sindical integral. Y, además, está nuestro gran hecho diferencial: la caja de Resistencia. La compensación mensual de la caja de Resistencia ordinaria en 2012 es de 800,65 euros, el 107% del SMI. La compensación con complemento del 15% llega a los 920,75 euros, el 123% del SMI. Y la Caja extraordinria alcanza mensualmente los 1601,30 euros, el 214% del SMI.

## Gure finantza-autonomia dagoeneko %90tik gorakoa da

Un dato muy importante sobre la Caja durante este cuatrienio: entre los años 2009 al 2012 ha estado detrás de más de 480 huelgas y conflictos. Muchísimos de ellos se han ganado, también, gracias a la Caja de Resistencia.

Si analizamos todos los datos, creo que estar afiliado/a a ELA es un dinero bien empleado.

**-La afiliación nos da fuerza. Nos da autonomía. Y con la que está cayendo, no queda otra que seguir aumentando nuestra base afiliativa.**

-Nuestro futuro pasa por ser cada vez más, trabajando en un misma línea de justicia social y solidaridad. Vivimos momentos duros en los que se percibe con toda su crudeza la absoluta necesidad de independencia y autonomía. Y saber que nuestro proyecto depende exclusivamente de nosotros mismos, de la gente que componemos ELA, nos da una fuerza enorme.

ELA no toma ni va a tomar sus decisiones por estar colgada a los presupuestos generales del estado o de los respectivos gobiernos autonómicos. Ante unas Administraciones públicas que funcionan a base de recortes por decreto y que no tienen ningún empacho en llamarnos a tirar del carro y sumarnos a esa farsa denominada diálogo social, ELA va a seguir poniendo las bases de su modelo sindical de contrapoder, cuyo único objetivo es la mejora de las condiciones de vida de todos y todas las trabajadoras de Euskal Herria.

ELA llega a este Congreso, el XIII, preparada para seguir luchando.

## DATOS ECONÓMICOS 2008-2011»

| INGRESOS | 2004-2007 | % | 2008-2011 | % |
|---|---|---|---|---|
| Cuotas | 64.831.794 | 85,7 | 80.828.432 | 88,9 |
| Subvenciones | 4.974.012 | 6,6 | 5.346.411 | 5,8 |
| Partic. institucional | 3.953.286 | 5,2 | 2.160.614 | 2,4 |
| Fondos Neg. Colec. | 784.792 | 1,04 | 932.625 | 1,03 |
| Otros (propios) | 1.087.963 | 1,44 | 1.600.417 | 1,76 |
| **Total** | **75.631.847** | **100** | **90.868.497** | **100** |

# 2013. KONGRESUA

## BILBAO urtarrilak 23 • 24 de enero




# Proiektua finkatu

**Urtarrilaren 23 eta 24an Bilboko Euskalduna Jauregian ELAren XIII. Kongresu konfederala ospatuko da**, *Lankidetu!* (bat egin ezazu sindikatuarekin) goiburuarekin. Izan ere, honelako garai latzotan sindikatua baita langileklaseari geratzen zaion defentsarako tresna bakarra.

Sindikatuko antolakunde guztietako 736 ordezkarik finkatuko dituzte datozen lau urteetan ELAren ildo estrategiko izango direnak, baita aktualitate biziko hainbat gairi buruzko ebazpenak ere. Halaber, kongresuak hautatuko du Batzorde Eragilea; proposatu den zerrendan, hainbat funtzio aldatuko dira, baina aurreko taldeak jarraitzen du.

Noski, Kongresua une egokia izan ohi da egiten ari den lanari buruzko gogoeta egin eta etorkizunerako prestatze aldera; datozen garaietan arazoak handiak dira, baina baita hobera egiteko aukerak ere; horixe izan da sindikatuaren bizitza duela mende bete baino gehiago solidario talde batek sortu zuenez gero.

**Nazioarteko ordezkari ugari.** Dagoenekoz konfirmazio ugari jaso dugu bai nazio ezberdinetako delegazioetatik eta baita ere nazioarteko sindikatuen erakundeetatik. Euskal sindikatuen artean, berriz, aipatzekoak dira LAB, STEE-EILAS, EHNE, ELB eta ESK.

Bestalde, gure artean ere izango dugu azken urteotan lana elkarrekin burutu dugun eragile sozialen ordezkaritza zabala.

Kongresua amaitzeko, idazkari nagusi hautatu berriaren hitzaldia izango da.







**Los próximos 23 y 24 de enero, el Palacio Euskalduna, de Bilbao, acogerá la celebración del XIII Congreso de ELA bajo el lema Lankidetu!**

EL CONTENIDO DE LA PONENCIA GENERAL, QUE MARCA LAS LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE LA CONFEDERACIÓN PARA LOS PRÓXIMOS 4 AÑOS, SE VE COMPLEMENTADO CON UNA SERIE DE RESOLUCIONES QUE MARCAN LA POSICIÓN DEL SINDICATO SOBRE TEMAS ACTUALES Y ESTRATÉGICOS.
A CONTINUACIÓN, RECOGEMOS UN RESÚMEN DE LAS MÁS NOVEDOSAS

# ResolucionesEbazpenak

## Afektu- eta sexu-aniztasuna bermatzea ere sindikatuon zeregina da

**Sistema kapitalista menderakuntzan oinarritutako sistema da.** Menderakuntza hori bortxaren bidez gauzatzen da eta arau bihurtzen dira bizitzaren esparru guztietan, baita sexuaren eremuan ere. Hala, heterosexualitatea bihurtzen da bizitzari begiratzeko prisma nagusia, eta isilpean uzten dira eta, areago, jazarri egiten dira beste sexu-aukera batzuk, hala nola homosexualitatea, lesbianismoa, transexualitatea eta bisexualitatea.

LGTB pertsonekiko fobia gizarteko eta ekonomiako egitura guztietara hedatzen da, eta lan-mundua ez da salbuespena. Nahiz eta legeak erabat debekatzen duen sexu-aukera edo genero-identitate arrazoiengatik lanean inor baztertzea, errealitatea bestelakoa da. LGTB kolektiboetako pertsona askok bazterketa jasaten dute lanmunduan: zailtasunak dituzte beren sexu-aukera ageriko egiteko; eragozpen ugari gainditu behar dituzte laneratzeko eta ondoren lanean gora egiteko; askotan ez zaizkie kontratuak berritzen edo arrazoirik gabe kaleratzen dituzte; laneko jazarpena jasaten dute; beren sexu bizitza eta afektuzkoa publiko egiteak baldintzaturik uko egin behar diote laneko eskubideei...

Egoera horren aurrean, LGTB kolektiboen eskubideekiko konpromisoa indartu behar du ELAk, langile guztiak babesteko konpromisoa duen klaseko sindikatua dela berretsi behar du, eta afektu- eta sexu-aniztasuna erabateko askatasunean garatzeko aukera emango duen gizarte-ereduaren alde dagoela erakutsi behar du.

Oldarraldi neoliberalarekin batera moral aldetik aurreko joera kontserbatzaileak indartzen ari diren honetan, ELAk irmo eutsi behar dio lan-munduan eta gizartean pertsona guztiek tratu eta aukera berdinak izateko printzipioari.

### Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresuak ebatzi du:

- Gure diskurtso politiko eta sindikalean indar handiagoz aldarrikatzea LGTB kolektiboetako pertsonen eskubide berdintasunerako eskakizuna.
- Militantzia sentsibilizatzea eta sindikatuaren barnean afektu eta sexu-aniztasunaren adierazpen guztiak normalizatzea.
- Lantokietan homofobia, lesbofobia eta transfobia prebenitzeko eta desagerrarazteko lan egitea, sexu-aukera eta genero-identitate guztiak ageriko egitea errespetuz hartuta.
- Sindikatuaren jardueretan eta negoziazio kolektiboan jasotzea LGTB langileen eskubide berdintasunerako eta bazterketa oro desagerrarazteko eskakizuna, baita sexu-aniztasunari buruzko klausula zehatzak gehitzea ere.

## El derecho a una vivienda digna, derecho humano vulnerado

**En Hego Euskal Herria se han producido más de 8.000 desahucios desde 2008.** La situación de la gente desahuciada es desesperada. Pero la problemática de la vivienda va más allá de esta realidad: En Euskal Herria hay más de 100.000 personas que se quieren independizar pero no lo pueden hacer. Muchas personas, hipotecadas o en alquiler, tienen graves problemas para hacer frente a los pagos mensuales. Las entidades financieras han hecho de la hipoteca un negocio muy lucrativo. El 5,8% de las viviendas de Hego Euskal Herria (más de 70.000) se encuentran deshabitadas de manera permanente.

Las políticas de vivienda seguidas por las instituciones (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Gobierno de Navarra y ayuntamientos) se han basado en el impulso de la construcción de nueva vivienda, fomentando la propiedad y el encarecimiento especulativo de la misma. De este modo han favorecido a quienes han hecho negocio con las necesidades de la gente.

### Ante esta situación el XIII Congreso de ELA resuelve:

**1.** Exigir al Gobierno de Navarra, al Gobierno Vasco, a las Diputaciones Forales y a los municipios un cambio radical de la política de vivienda, basado en:

- El reconocimiento del derecho de todas las personas a poder acceder a una vivienda digna de alquiler. Este derecho debe poder ser exigido a la administración de forma efectiva.
- La creación de un parque público de viviendas de alquiler social, que permita dar cumplimiento al derecho de todas las personas a acceder a una vivienda.
- Intervención sobre la vivienda vacía. Se deben impulsar medidas de fomento y disuasorias que permitan poner estas viviendas al servicio de las necesidades sociales. Las entidades financieras deben ser obligadas a poner en alquiler social las viviendas que han acumulado por su participación en operaciones especulativas y por los desahucios.
- No a los desahucios. Ninguna persona debe poder ser desalojada de su vivienda habitual si no paga la hipoteca o el alquiler por falta de recursos económicos.
- La dación en pago. Quienes no pueden hacer frente al pago de la hipoteca deben poder saldar su deuda dando en pago el propio inmueble, sin deudas posteriores, y con el derecho a seguir en esa vivienda en alquiler social.
- Aumentar la inversión pública en vivienda.

**2.** Impulsar, en los espacios en los que ELA desarrolla su trabajo, campañas y movilizaciones a favor del derecho a una vivienda digna, contra los desahucios y los recortes sociales.

# Gizatasun handiagoko espetxe-politikaren alde, bake- eta adiskidetze-prozesuaren alde

**Espainiako eta Frantziako gobernuek euskal preso politikei ezarritako espetxe-politika bidegabea,** gizatasunik gabea eta zuzenbidearen aurkakoa da.

* Sakabanaketaren eraginez, 600 preso baino gehiago daude Espainiako eta Frantziako espetxeetan banaturik, beren jaioterritik urrun mantentzea beste helbururik gabe, presoak berak, senideak eta adiskideak bidegabe zigortzeko.

* Legeak aurreikusitakoari ere entzungor egiten diote, eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak kartzelan atxikitzen dituzte.

* Parot dotrinaren bidez zigorrak luzatzeko politikari eusten jarraitzen dute, nahiz eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aho betez ebatzi politika horrek urratu egiten duela Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean jasotako legezkotasun-printzipioa eta askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea.

Garaia da Itun Antiterrorista bertan behera uzteko, gatazkaren konponbiderako pedagogiari bide emateko, egian eta justizian oinarritutako adiskidetzea bultzatzeko, eta desarmearekin, presoekin eta erbesteratuekin lotura duten alderdi guztiak konpontze aldera elkarrizketa politikoa abiarazteko. Urrats eraginkorrak eman behar dira biktima guztiei aitorpena egiteko. Hori aldarrikatzen du gizartearen gehiengo zabalak gure herrian.

## Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu Konfederalak ebatzi du:

- Espainiako eta Frantziako gobernuen espetxe-politika salatzea.
- EAEko erakundeei premiaz eskatzea aldarrika dezatela berehala espetxe-politika eta espetxe-erakundeen behin betiko transferentzia.
- Urtean zehar ekintza konfederal bat egitea bestelako espetxe-politika bat aldarrikatzeko.
- Erkidegoetako gobernuak premiatzea 1936tik hona gure herrialdean gertatu diren giza eskubideen urraketa guztien errolda zorrotza eta zehatza egitera, urraketak edonork eragindakoak direla ere. Gure irudiko ezinbesteko urratsa da errolda hori, egian, justizian, aitorpenean eta berriro ez gertatzeko bermean oinarritutako bake- eta adiskidetze-prozesua bideratuko bada.
- Euskal Herri osoan pertsona guztientzako giza eskubide guztiak aldarrikatzen dituzten ekimen plural guztietan parte hartzea.
- Sindikatuak parte hartzen duen nazioarteko foroetan konfederazioak gai eta arazo horien gainean bultzatutako ekimen eta proposamenen berri ematea, baita 2011ko urriaren 17an Aieten egindako Nazioarteko Bake Konferentziako edukien berri ere.

# No al pago de la deuda ilegítima. No debemos, no pagamos

**Vivimos en deudocracia.** La deudocracia consiste en generar un elevado nivel de deuda pública (deuda privada pasa a ser deuda pública), convertir en acreedores a quienes han causado la crisis y dar prioridad al pago de la deuda sobre todo lo demás. Esto provoca una importante reducción del gasto social. Es una estrategia que atenta contra los sectores sociales más castigados (personas en paro, pensionistas, mujeres, inmigrantes,…) y que beneficia al capital.

Existe una opinión generalizada de que las deudas, tengan el origen que tengan, se tienen que pagar. Sin embargo, es necesario analizar los motivos que han llevado a crear la deuda. La deuda de los gobiernos será ilegítima, tal y como lo recogen el derecho y la práctica internacional, si procede de préstamos que atentan contra la dignidad de la vida de las personas y/o ponen en peligro la convivencia pacífica entre los pueblos. Son deudas ilegítimas las basadas en decisiones injustas, que no se ajustan al interés general y tomadas a espaldas de la ciudadanía, aspecto que justificaría su impago.

Las instituciones -tanto las del estado español como las de Hego Euskal Herria- han aumentado en los últimos años sus niveles de deuda pública. Este aumento es debido a los rescates bancarios, la aplicación de una política fiscal injusta, a destinar enormes cantidades de dinero a la financiación de infraestructuras más que cuestionables, a la renuncia de los gobiernos a que el Banco Central Europeo (BCE) financie a las instituciones a un bajo tipo de interés…Teniendo en cuenta el origen de esta deuda se puede adelantar que, en gran medida, es una deuda ilegítima.

El Congreso considera necesario realizar auditorías ciudadanas de la deuda pública. Se trata de determinar qué parte de la deuda contraída es legítima y qué parte no lo es, para posteriormente declarar el impago de la parte ilegítima. Pero no basta con declarar este impago de la deuda ilegítima. Es necesario cambiar radicalmente el actual modelo económico, ya que de lo contrario la deuda se volverá a generar al servicio de los poderes económicos y financieros, y se seguirán agravando las injusticias económicas, sociales y medioambientales. Se requieren medidas como una drástica reforma fiscal que dé marcha atrás en la política fiscal neoliberal de las últimas décadas; una fuerte regulación del sector financiero, prohibiendo la especulación y los paraísos fiscales; banca pública; la reducción del tiempo de trabajo sin reducción salarial y con creación de empleo compensatorio; el buen vivir, superando el actual modelo de crecimiento, del todo insostenible.

## El XIII Congreso de ELA resuelve:

- El compromiso de la organización con la socializción y el impulso de los procesos de auditoría ciudadana de la deuda, con una fuerte participación social, exigiendo el impago de la parte ilegítima de la deuda. En este sentido, en los próximos meses ELA llevará a cabo una campaña de sensibilización sobre esta materia, dirigida al conjunto de la clase trabajadora y a la sociedad en general. Además, realizaremos un trabajo formativo específico entre nuestra militancia.
- La necesidad de favorecer procesos de movilización social para exigir a todas las administraciones que faciliten la información necesaria y que se comprometan a no pagar la parte ilegítima de la deuda. Esta exigencia la debemos llevar, cuanto menos,, al Gobierno Vasco, al Gobierno de Navarra y a las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.
- Tejer las alianzas sociales necesarias para poder llevar a cabo estas iniciativas.

# “Soilik sindikalgintza aldarrikatzaileak du etorkizuna”

JOSE ELORRIETAK ELAREN IBILBIDEA ETA SINDIKALGINTZAREN ERRONKAK IKERTZEN DITU BERE AZKEN LIBURUAN

› **GORKA QUEVEDO**



**2008ko azaroan, ELAren XII. Kongresuarekin batera, orduko idazkari nagusi Jose Elorrietak agur esan zien sindikatuan zituen ardurei.** Ezin esan, ordea, ordutik hona geldirik egon denik. Horren lekuko Manu Robles-Arangiz Fundazioarekin eta Txalaparta argitaletxearekin elkarlanean EHUko doktore izateko tesia liburu bihurtu du. *Renovación sindical. Una aproximación a la trayectoria de ELA* lanean, ELAren azken hamarkadetako ibilbidea aztertzeaz gain, egungo eta etorkizuneko sindikalgintza ulertzeko gakoak eskaintzen dizkigu.

**-Unibertsitatean egin zenuen doktore tesia liburu bihurtu nahi izan duzu. Zein helbururekin?**

-Sindikalgintzak eragina duen testuinguru politikoan eta ekonomikoan aldaketa erradikala eman da azken urteetan, eta horrek desafio izugarri baten aurrean jartzen gaitu. Emandako aldaketaren aurrean zein erantzun sindikal ematen ari den edo ematen ari diren aztertu nahi izan dut.

**-Testuinguruaren aldaketa erradikalaz mintzo zara. Zein izango litzateke?**

-Kapitalismoak nolabaiteko arau edo erregulazioak zituen garai batetik hori guztia desagertu den beste garai batetara igaro gara. Aurreko egoera horretan mugimendu sindikalak bazuen langileon defentsa kolektiboan ekiteko interbentzio margen bat. Bestalde, botere politikoak eta botere instituzionalak paper oso garrantzitsua betetzen zuten ekonomikoan. Horretarako hainbat ekimenez baliatzen ziren, zerga-politika edo gastu politika, adibidez. Hau da, Estatuek edo tokian tokiko erakundeek ekonomian parte-hartzen zuten.

Hori guztia goitik behera aldatu zen 80. hamarkadan neoliberalismoarekin. Kapitalismoaren aro berri batean sartzen gara honela, desaraututako kapitalismo bat, inolako araurik gabe bere nahierara dabilena. Ekonomian erabateko hegemonia izatea lortu du, eta politikarekiko duen kontrola ia erabatekoa dela esan genezake.

Aldaketa horrekin ordura arte gurean sindikalgintza egiteko eredua errotik apurtzen da, bera sustengatzen zuen hanketako bat –eta hainbat kasutan hanka bakarra– hautsi egiten delako. Gizarte-elkarrizketa edo kontzertazioa deitu genezakeen sindikalgintza eredua hautsi egiten da. Kapitalak eredu hori goitik behera suntsitu du. Alde bakarreko eredua planteatzen du orain kapitalismoak, non Gobernuek euren alde diktatuko duten. Garai berri honetan neoliberalismoaren hegemonia onartu beharra dago, eta aurre egiteko modua bilatu.




**-Eta nola egin diezaiokegu aurre?**

-Bi aukera daude. Lehena egoera berrira ez egokitzea eta eskema zaharrekin funtzionatzea, zure papera figurante paper hutsera mugatu arren. Bigarrena zein litzateke? Onartzea testuingurua aldatu didatela, baina era berean nik ere baditudala defendatu beharreko interes kolektibo batzuk. Orain arte egiten ari nintzena ezin dut egiten jarraitu eta beste zerbait egin beharko dut. Liburuan nire asmoetako bat ELAk desafio horri nola ekin dion aztertzea izan da.

## “El sindicato tiene que desarrollar los elementos de poder que tiene para hacer frente a los ataques del neoliberalismo”

**-Eta zein ondorio atera dituzu?**

-Sindikatuak egoera berri honi aurre egiteko hainbat barne botere elementu ditu, edo izan ditzake, eta horietan sakondu behar du. Adibidez, lantokietan presentzia indartsua izatea, gertutasun sindikalgintza bat egitea. Behean indartsua ez bazara ezin zara inon indartsua izan. Beste botere elementu bat, neurri handi batean aurrekoari lotuta, langileek ekintza kolektiboan parte-hartze demokratikorako duten gaitasuna da. Beste errekurtso gisa aliantza sindikal eta sozialak egiteko gaitasuna egongo litzateke.

Hori guztia aktibatu eta mobilizatzeko badago ezinbestekoa den barne botere elementu bat: antolakuntza. Organizazio ahula duten mugimenduek bizitza oso laburra izan ohi dute. Honi guztiari zentzua ematen diona militantea da, ez pertsona gisa, kolektibo gisa ulertuta baizik. Eta hori guztia biltzen duena ideologia da. Ez da aski zer gertatzen ari den esatea, honen guztiaren atzean errudunak daudela aipatzea oso garrantzitsua da. Ez gara fenomeno natural baten inguruan mintzo, elite ekonomiko batzuen erabakiek ekarri gaituzte hona.

Eta ororen gainetik badago azpimarratu nahiko nukeen gauza bat: aldaketa guzti hauei egokitzeko funtsezkoa da autonomia ekonomikoa eta politikoa.

**-Nola ikusten duzu etorkizuneko sindikalgintza?**

-Sindikalgintzak argi eta garbi esparru alternatiboan kokatu behar du, kontra-botere gisa kokatu behar da, gizarte-mugimenduekin elkarlanean. Sindikatu bat ez da interes-talde bat izan behar, gizarte-mugimenduen alorrean kokatu behar gara. Eta gizarte-mugimendu bat interes-talde batetik bereizten duena borroka da. Bere ezaugarria aldarrikapenerako borroka eta ekintza kolektiboa antolatzea da. Bando batean, parte batean kokatuta gaudenaren kontzientzia izan behar dugu. Guztiok ontzi berean goazela eta arraunean elkarrekin egin behar dugula eta horrelako esaldiak zinismo hutsa dira, batez ere neoliberalen ahotan. Esparru horretan kokatzen den sindikalgintzak etorkizuna izan baduela iruditzen zait, bestea ez.

# DESDE IPARRALDE
# IPARRALDETIK



73 comercios, empresas, asociaciones... forman parte ya de la red Euskal Moneta, y otras 70 están en trámites

NUEVO EJEMPLO DE CONSTRUCCIÓN NACIONAL EN IPARRALDE CON LA CREACIÓN DE LA MONEDA VASCA

# El eusko ya es una realidad

› X.H.

**Con el objetivo de relocalizar y reorientar parte de la economía, a partir del 31 de enero el eusko será un medio real de pago.** Los vascos de Iparralde y de Hegoalde podremos hacer nuestras compras, en todo Iparralde, con dinero vasco, ecológico y solidario.

Desde ahora, cualquier persona podrá pagar su café, un corte de pelo o comprar queso con billetes de eusko. Bastará haberse adherido a la asociación Euskal Moneta (online en *http://www.euskalmoneta.org/*) o a través de las oficinas de cambio presentes de Maule a Hendaia, donde podrá convertir sus euros en euskos, en billetes impresos y seguros. A partir de ahí, se podrá ir a las tiendas y a la red de empresas Eusko, cuya lista se detallará en un folleto que se distribuirá a los miembros adheridos.

**Urtarrilaren 31etik aurrera Ipar Euskal Herrian zehar erosteko modu berri bat izango dugu, euskoa, moneta ekologiko eta solidarioa**

**Relocalizar la economía y defender el euskara.** Estos establecimientos habrán firmado un código que excluye una serie de criterios social o ecológicamente dañinos. Ellos se comprometen con dos retos: uno, relativo a la relocalización de parte de sus productos o servicios, y el otro, a la promoción del euskera en la vida pública.

Estas compañías deberán reutilizar los euskos con los que se les ha pagado buscando, por ejemplo, proveedores locales a los que se pueda pagar con euskos. Están incentivados a hacerlo porque pierden un 5% cuando convierten euskos en euros.

Este 5% se destina a financiar asociaciones locales (3%) y el propio funcionamiento del sistema (2%). Cada persona que se une a Euskal Moneta patrocina, en efecto, una asociación de su elección (como Laborantza Ganbara, Bizi, ikastolas...). Cada vez que cambie euros en euskos la persona recibirá un eusko por cada euro cambiado y, además, el 3% de esa cantidad irá a la asociación patrocinada.

Los euros convertidos en euskos estarán depositados en un fondo de ahorro ético que financia proyectos sociales o ecológicos y, a través de una colaboración con la sociedad de ahorro e inversión local Herrikoa, determinados proyectos considerados estratégicos para el desarrollo local.

**Un voto diario en favor de otro País Vasco.** El objetivo de esta moneda local vasca es, obviamente, retirar la mayor parte posible de nuestra capacidad de compra de los circuitos de economía especulativa y globalizada y vincularla con la lógica de desarrollo local, ecológico y solidario. Este poder de compra cautivo en un territorio y en una red de establecimientos comprometidos con un espíritu concreto circulará en ese entorno, como promedio, 2,5 veces más que el euro (según las estadísticas alemanas, donde tales monedas locales existen desde 2003). La creación de riqueza vinculada a la circulación del dinero forma parte de la apuesta por una moneda local de este tipo.

Por supuesto, al igual que Euskal Herriko Laborantza Ganbara en su momento, el nacimiento del eusko no es neutral en Iparralde, donde el gobierno francés niega permanentemente cualquier reconocimiento y existencia institucional. Al no ser utilizable más que en el País Vasco y estar vinculado a la promoción pública del euskara, el eusko define y marca la existencia de un territorio bien concreto: Ipar Euskal Herria

En pocos días, comprar el pan en Angelu o en Atharratze podrá constituir un acto concreto de afirmación de pertenencia a Euskal Herria y un mínimo gesto cotidiano en favor de una economía más humanizada y social, y ecológicamente más responsable. Cada billete de eusko constituirá una papeleta de voto cotidiano en favor de otra Euskal Herria.



# 2012ko 12 LAGUN

› GORKA QUEVEDO

**1. Aitziber:** 29 urte. Zerbitzu publikoetan inposatzen ari diren lanpostuen murrizketen eta ordezkapenen atzeratzearen ondorioz aurten apenas izan du lan egiteko aukerarik irakasle honek, hezkuntzan dauden beharrak handiak izan arren.

**2. Isabel:** Etorkin boliviarra. Adinekoen pertsonen zaintzan egiten du lan. Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata ozta-ozta gainditzen du, eta nekez garatu dezake bizitza duina.

**3. Janire:** CAF enpresan garbiketa lanean dihardu. 2012an, bere lankideekin batera, 108 egunetako greba burutu zuen, euren eskubideen alde. Borrokaren ondorioz akordioa lortu zen zuzendaritzarekin, lan baldintzak nabarmen hobetzeko eta lan-erreformaren kontra blindatzeko.

**4. Ramon:** Celsa Atlanticek Gasteizen dituen bi lantokietatik kaleratuko zituen 358 langileetako bat izango zela adierazi zioten. Bidegabekeria onartu ez eta langileek mobilizazioak hasi zituzten. Epaitegietara ere jo zuten. EAEko Auzitegi Nagusiak baliogabe utzi du multinazionalaren asmoa: despidoak ezdeusak zirela esan eta agerian utzi du kaleratzeak justifikatzeko aitzakia –bere egoera ekonomiakoa– gezurra zela.

**5. Amaia:** 53 urteko emakume honek bere buruaz beste egin zuen Barakaldon, Banku baten salaketari jarraituz bere etxetik kanporatu behar zutenean.

**6. Jon:** Langabezian dago; bere bikotea, ere. Bi seme-alaba dituzte. Euskal Herriko milaka etxeetan gosea pasatzen da. Jonena, horietako bat da.

**7. Peru:** Egun batean honakoa irakurri zuen egunkarian Bridgestoneko langile honek. “Bridgestonek 1.130 milioi euro irabazi ditu urteko lehen 9 hilabeteetan, iragan urtean epe horretan irabazitakoa baina %41,4 gehiago”. Hurrengo egunean albiste honekin egin zuen topo. “Bridgestonek 216 langilera kaleratzeko asmoa du Basauriko eta Usansoloko lantokietan”.

**8. Mari Karmen:** 18 urte zituela hasi zen telefonista lanetan. Datorren urtean erretiroa hartzekoa asmoa zuen. Orain kezkatuta dabil. Rajoyren Gobernuak pentsioen erreforma berria prestatzen ari da, eta ez daki noiz izango duen erretiroa hartzeko aukera.

**9. Saioa:** Lan erreforma aplikatuz miseria baten truke kalera bota duten milaka langileetako bat izan da.

**10. Luis:** Bizkaiko gasolindegietako langilea. Lan hitzarmena 2010. urteko abenduaren 31n iraungi zen. Patronalak ez du ahaleginik egin akordio duin bat lortzeko, eta egoera hau denboran luzatu nahi du, jakinda uztailean ultraktibitatea amaitu eta berritu gabeko hitzarmenak bertan behera gelditzen direla. Hori gauzatuz gero langileen-estatutua ezarriko diete, eurak eta euren familiak miseriara bidaliz. Horregatik daude abenduaren 21etik greba mugagabean.

**11. Isabel:** Abenduan Laudioko Guardian enpresako zuzendaritzak 139 langile botatzeko espedientea erretiratu zuen, 60 egunetako grebaren ostean. Era berean, lan erreformaren neurri gogorrenak indargabetzen dituen hitzarmen kolektiboa sinatu zen. Langileen borrokari esker Isabel eta espedientean agertzen diren beste 138 lagunak lanean jarraitzen dute.

**12. Ahaztu garen guztiak:** Jakitun gara lagun asko utzi ditugula errepaso honetatik kanpo. Horiek ere oroitu nahi ditugu.

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129